

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Jose Mari Altuna Berridi

*Donostia,
Gipuzkoa
(1940)*

Aurkibidea

Biografia



Lizarriturriko etxeetan jaio zen.

Zintak

DON-139

- **Proiektua:** Bizi dugun Antigua
- **Elkarrizketatzailea(k):** Duarte, Joserra
- **Data:** 2009-06-01
- **Iraupena:** 18 min
- **Euskarria:** MiniDV
- **Kodifikatzailea:** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Emalea:** Tolosa, Iker

DON-156

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Gallastegi, Maddi
- **Data:** 2013-05-01
- **Iraupena:** 58 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Antigua: herri txiki bat izatetik

- **Erref:** DON-139/002
- **Iraupena:** 0:00:44. **Hasi:** 00:00:14. **Bukatu:** 00:00:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

<p>Bere ustez Antigua oraindik ere herri txiki bat da. Gaur egun asko handitu da eta auzotarren harremana asko aldatu da, gaur egungo bizitza modernoaren ondorio.</p>

Transkripzioa

Antiguo, neretzat behintzat, oraindik herri txiki bat da. Egia da hori pixkana-pixkana galtzen ari dala. Lehen, ba, hori, esan [deun] bezala, auzo... herri txiki bat: danak ezautzen giñan, danak leku beretan ibiltzen giñan. Eta, gaur egun, bueno, haunditu in da. Ez dakit... Bai, dexente haunditu da; ez dago harremana... lehen zeon harreman personal hori nik uste det nahiko galdu dala. Hori bizitzak, gaurko bizitza modernoak, horrea bultzatzen du, baiño nik uste det hor asko galdu dala.

2. Antiguako ikastetxeetan ikasten zuten bertakoek

- **Erref:** DON-139/004
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:01:14. **Bukatu:** 00:02:32
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

14 urtera arte joaten ziren eskolara. Nagusiagoek Ondarretan ikasi zuten. Auzoan zeuden ikastetxe desberdinak aipatzen ditu. Denek ikasten zuten auzoko ikastetxe horietan, eta horrek abantaila asko zituen.

3. Auzo osoa zen auzo txikitan banatutako parkea

- **Erref:** DON-139/005
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:02:32. **Bukatu:** 00:04:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

Umeak auzo osoan jolasten ziren, dena zen parke bat. Auzoan bertan auzo desberdinak zeuden: Aizkorri kalea ("Barrio Chino" deiturikoa), Lizarriturriko etxeak (Jose Mari bertan jaio zen), eliza eta plaza ingurua eta Ondarreta. Frontoi eta jolastoki desberdinak zituzten.

4. Antigua langile auzoa zen, giro aberatseko auzo pobrea

- **Erref:** DON-139/007
- **Iraupena:** 0:02:23. **Hasi:** 00:04:26. **Bukatu:** 00:06:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lantegiak » Ekonomia eta industria » Gipuzkoako lantegiak » Donostialdeko lantegiak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Antigua langile auzoa zen, lantegi asko zeuden: Suchard txokolate-lantegia, Lagarto xaboia egiten zuena (Lizarriturri), Leon garagardoarena, Columbia disko-etxea, izotz-fabrika, kristal-fabrika, tornu-fabrika... Gehienak langileen seme-alabak ziren. Tailer txiki asko ere bazeuden. Jose Mari 14 urterekin banketxean hasi zen gutunak partitzen, baina beste aukera asko zeuden. Gerora 50 urtez egon da enpresa berean. Langile auzoa zenez, auzo pobrea zela dio, baina giro aberatsekoa. Denak ezagutzen zuten elkar. Eliza azpiko lokal batean ere biltzen ziren umetan. Harreman pertsonalak umetan garatzen zituzten, eskolara joaterakoan eta elkarrekin jolasterakoan.

5. Antigua elizak mugatzen zuen

- **Erref:** DON-139/012
- **Iraupena:** 0:01:20. **Hasi:** 00:09:14. **Bukatu:** 00:10:34
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Auzoak

Laburpena:

Antigua elizak mugatzen zuten. Antiguako elizara inguruko baserritarretakoak ere etortzen ziren, bertan bataiatzen zein ezkontzen ziren eta "Luis del Antigu" ere bertan zuten. Bizitza bertan egiten zuten.

6. Donostiako zein Tolosako tranbiak, "mataburrosa"

- **Erref:** DON-139/014
- **Iraupena:** 0:00:28. **Hasi:** 00:10:52. **Bukatu:** 00:11:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Garraioak » Autobusak

Laburpena:

Donostiako zein Tolosako tranbiak geltokia zuten auzoan. Beraiek "Mataburros" deitzen zioten; antza denez, noizbait astoren bat harrapatu eta hil omen zuelako.

7. Auzoa despertsonalizatu egin da

- **Erref:** DON-139/016
- **Iraupena:** 0:02:22. **Hasi:** 00:11:36. **Bukatu:** 00:13:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana

Laburpena:

Gaur egun ezinezkoa da lehengora bueltatzea. Auzoak diseinatzen diren moduan despertsonalizatu eta indibidualismoa bultzatzen da; supermerkatuak dira horren adibide bere ustez. Lehen Matia kalean bizi asko zegoen: baserritarrak zetozen, azoka zegoen... Etxeak garestiak direnez, jende gazteak ezin du auzoan bizi. Lantegiak ere itxi egin dira.

8. Euskara ez da zaindu behar, erabili baizik

- **Erref:** DON-139/018
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:14:16. **Bukatu:** 00:16:02
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Iritziak
- Euskara » Euskararekiko sentimendua

Laburpena:

<p>Umeentzako mezua: euskara ez zaintzeko, erabiltzeko. Ezinbestekoa da erabiltzea. Pena ematen dio euskaraz dakien umea erdaraz entzutea.</p>

Transkripzioa

Ikastolako umeei behintzat, ta besteei, danai, euskera ez zaindu, erabiltzeko. Erabiltzeko. Hori da pixkat lehen esan deten indibidualismo ta gauz hoiek galtzen ari diran hortan, horrek nolabait batuko gaitula. Eta, gaiñera, ezinbestekoa dala euskeraz erabiltzea, ezta? Ni... pena haundiya

ematen dit kalean edozein ume etortzen da eta “¿Qué hora es?”, eta badakizu euskeraz dakiela fijo. Eta euskeraz erantzuten diozu ta ulertzen du, ezta? Hori, euskera erabiltzea, hori igual haurran problema ez da, baiño beraiek behintzat hortan ahalegindu bihar dutela, jakinda gaiñea geo pena sentituko dutela, ba, galdu in dalako eo erreztasuna galdu dutelako eo lotsa ematen dielako eo. Eta oso inportantea dala eta altxor haundi bat dakatela eta hori erabiltzeko, klaro. Bestela, ba, auzo begira ere bai. Auzo begira pixkat... o bere inguru begira, beren ideiak eta sorkuntza ta... beraiek egin behar dute hemen aldaketa. Ordun, ba, pixkat begiratzeko besteen... beste inguruari eta ez norberari bakarrik. Auzoari begira, pentsatzeko eta sortzeko gauza berrik; guk ya ezin ditugu, baiño beraiek seguru sortuko dutela gauza berrik. Eta sortzen duten hori ez bakarrik beraientzat, baizik denentzat izan dadila.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-01-17

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com